



DSS2016.EU



ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

2015-10-15, URRIKO SAIOAREN MEMORIA

SAIOAREN HELBURUAK:

- ▶ ***Trailean jasotako proiektuen artean hausnarketa eta esleipen ariketa egin talde lanean.***
- ▶ ***Hautatuko proiektuen onarpena.***
- ▶ ***Balorazioak: egunekoa zein orokorra.***
- ▶ ***Azaroko saioaren eskema adostea***

PARTAIDEAK:

- ***2016 BULEGOTIK:*** Iñigo Cantero, Partaidetza Zuzendaritzaren ordezkaria; Mikel Goñi, Energia Olatuak programaren arduraduna.
- ***ARDORA LAN TALDEA:*** 13 partaide, 5 emakumezkoak eta 8 gizonezkoak.
- ***AZTIKER IKERGUNETIK:*** Teknikari bideratzaileak: Markel Ormazabal eta Maitane Barrenetxea.



ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015


1. SARRERA ETA SAIOAREN KOKAPENA

Saioa hasi aurretik, parte hartzaileekin saioan eta hautatze dinamikan erabiliko den metodologia oroitzeke frogazko ariketa egin da. Ekainean ARDORA 2 eta 3 LAN TALDEEKIN aurkezpen lan saio bat ospatu zen. Saio horretan, hautatze dinamiketan erabiliko den metodologiaren frogazko ariketa egin zen. Baina ARDORA 2 LAN TALDEA uztailean bertan hasi baldin bazen lanean, eta ondorioz ariketaren mekanika oraindik "frexko" baldin bazuten, ez da berdina gertatzen ARDORA 3 LAN TALDEAREKIN. Gauzak horrela, lan saioaren aurretik, metodologia oroitzeke eta eguneratzeko frogazko ariketa egitera gonbidatu zaie parte hartzaileei.

Saioa 18:00etan hasi da eguneratze ariketarekin.

Erabakiak hartzeko proposatzen den hiru urratsetako dinamika azaldu da. Horretarako, eta erabiliko den metodologia ulerterrazagoa izan dadin, hiru balizko proiektu aurkeztu zaizkie parte hartzaileei. Behin metodologia aurkeztuta, ariketaren gauzapean praktikoa hiru balizko proiektu horien gainean egin da.

Dagoeneko *Energia-Olatuak 2015 Deialdia*-k jaso ditu proiektuek bete beharko dituzten gutxieneko batzuk. Gutxieneko hauek *DSS2016.EU* egitasmoak oinarrian dituen balioei erantzuten diete, eta hauek izango dira proiektuen hautaketarako erabiliko diren irizpideak.



Eta irizpide bakoitza behar bezala azaldu zaie parte hartzaileei. Hauek dira egitasmoaren irizpideak:

- 1- Pertsonengatik eta pertsonentzat izan dadila. Herriko biztanleen guztien parte hartzea bilatzen duena. Bai pertsona autoktonoentzat eta bai munduko beste leku batetik etorritakoentzat.
- 2- Askatasun arduratsua bezalako balioak indar ditzala, giza duintasuna eta elkarrekiko ulermena indar ditzala; batez ere, gazteei zuzendutako ekimen artistikoen bitartez.
- 3- Loturazko identitate europarra eraikitzen lagun dezala, lokalean oinarrituta.
- 4- Bitartekotza artistikoaren garrantzia errebendika dezala, eta bere prozesu sortzailea argitara dezala. Herritarretako parte-hartze aktiboa horrela bultzatuz.
- 5- Epe jakin batean iraunkorki eragingo duen ezaugarri edo osagaiak dituen ekimenak sustatzea.
- 6- Ezaguera eta talde onura bultzatzea eta, pentsamendu aldaketetan kolaborazioko eta gaitzeko forma berriak sustatzea.
- 7- Aniztasun linguistiko eta kulturalaren jasagarritasuna bermatzeko forma berriak bila ditzala

ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015


Irizpideen inguruko azalpena eta gogoeta egin ondoren, aurrerantzean proiektuen hautaketa egiteko erabiliko den metodologiaren gauzapen praktikoa egin da.



1. URRATSA: BALORAZIO KUANTITATIBOA:	2. URRATSA: BALORAZIO KUALITATIBOA:	3. URRATSA: Txanda irekiaren bidez, ADOSTASUNEZ, zehaztu da zeintzuk diren hautatutako proiektuak.
<ul style="list-style-type: none">- Aurkeztu den proiektu bakoitzeko fitxa bat du partaide bakoitzak.- Irizpide bakoitza baloratu du balio hauetako batekin: -1, 0, 1. <i>Irizpidea ez du betetzen, erdizka betetzen du edo ez dakit erantzuna, eta irizpidea betetzen du</i> izan dira zenbakien balioen erantzunak, hurrenez hurren.- Irizpide bakoitzaren arabera, partaideek proiektuari eman dioten balioen kontaketa ondoren, proiektu bakoitzak izan du emaitza kuantitatiboa, hots, puntuazio bat.	<ul style="list-style-type: none">- Partaide bakoitzak 3 gometza izan ditu proiektuen artean banatzeko (proiektu bakoitzari gehienez 2 gometza eman ahal izan zaizkio).- Ariketa honetan, eta irizpideen irakurketa objektibo batetik harago, norberaren iritzia edo gogo subjektiboa bilatu da. <p>Jarraian atxikitzen dugun emaitzen koadroan ikusten den bezala, bigarren proiektuaren kasuan ageriko geratu da balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa ez direla bat etorri. Halako kasuetan, hirugarren urrats bat proposatzen da.</p>	

ARDORA 3 LAN TALDEAREN lehen lan saioa zenez, Pablo Berastegi DSS2016 proiektuko zuzendaria eta Xabi Paya proiektuko kultura zuzendariak harrera eman diete parte hartzaileei, eta eskerrak adierazi proiektuan parte hartzeagatik. Aurkezpenaren ondoren, frogarik amaitu eta atsedendaldia egin da parte hartzaileen arteko aurkezpenekin batera.

Jarraian, saioaren helburuak kokatu dira Ardora lan taldearen funtzio zehatzen baitan, eta zehazki, Energia Olatuak programara uztailean zehar aurkeztu diren proiektuen esleipena kategoria bakarraren arabera:



-2.016€ko 5 proiektu

ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

2. HAUTAKETAK EGITEKO LAN DINAMIKAK

Hautaketa dinamikaren atal kuantitatiboa metodologian adostu bezala hasi bada ere, lehen hiru proiektuak aztertu eta baloratu ostean, gainontzeko proiektuetan irizpide bakoitzaren zenbaketa taula handian jaso beharrean, parte hartzaile bakoitzaren balio orokorra jasotzea erabaki da. Hau da, parte hartzaile bakoitzak bere taulan irizpide guztiak jaso ditu, baina dinamizatzailerik proiektuarekiko balio totala soilik eman die. Honela, prozedura azkartu eta ariketa saioaren denbora tartean barruan osatu ahal izan da.



Dinamikaren atal kualitatiboa egiteko, berriz, hiru pausu erabili dira. Ohiko lehenaz gain, bi kolore gehiagotako gometzak baliatu dira diru-laguntzak jasoko zituzten bost proiektuak hautatu, eta baita ordezkioak izango diren beste hirurak aukeratzeko.

Jarraian, bi ariketen emaitzak aurkezten dira:

ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

	KODEA	367	369	370	371	372	373	374	376	377	378
2.016€	IZENA	ESCULTURA ENTRE TODOS	RECITAL DE MUSICA INTERCULTURAL	POCH EN LA PLAYA	TALLERES DE ACTIVACIÓN URBANA	WE ARE HEBE	HILOTZ MIRA DONOSTIAN	LIBRO CON IMAGENES DE LA CULTURA UNDERGROUND	CICLO DIDACTICO FLAMENCO	24H DEL TESTIGO DE DSS 2016	CONCURSO DE PERTIGA EN LA CALLE
	BALORAZIOA	32	34	-18	-5	-8	18	-2	-13	-18	-1
	TOTALA										

	KODEA	379	380	388	389	390	391	392	396	402	403
2.016€	IZENA	UR ARTEAN	DONOSTIKAT	BAZEN BEHIN- ONCE UPON A TIME	LAMIAK, CORTOMETRAJE	FUEGOS ARTIFICIALES, LIBRO	LOS FUEGOS. 2.016 EXPOSICIÓN EXTERIOR	FUEGOS ARTIFICIALES, EXPOSICIÓN EN SALA	PERDIENDO EL HILO/HARIA GALTZEN	GELA 44	HERRI UZTA FESTIBALA
	BALORAZIOA	22	1	13	17	-17	-3	-14	22	18	25
	TOTALA										

	KODEA	404	405	406	408	409	410	411
2.016€	IZENA	CASA DE LLUVIA	GIZAARTE	MULTIMEDIA PHOTOGRAPHIC COLLAGE	BIBLIA Y CULTURA	GRETEL ETA BERE ARAZO TXIKIA	EDOZEIN DONOSTIA	GURE ARTEAN
	BALORAZIOA	-4	23	41	-30	4	6	13
	TOTALA							



ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

Behin partaideek haien lehen balorazio kualitatiboa eginik, azpimarratu dira bost proiektu. Zehazki, puntuazio altua izateaz gain (20 baino gehiago), sei gometza baino gehiago jaso dituzten proiektuak azpimarratu dira. Bi balorazio horiek eginik, eta ordena zehatzik gabe, honako proiektuak izendatzen dira **2.016€ko diru-laguntza jasotzeko:**

- ▶ **KODEA 367: Escultura entre todos.**
- ▶ **KODEA 369: Recital de música intercultural.**
- ▶ **KODEA 396: Perdiendo el hilo/Haria galtzen.**
- ▶ **KODEA 405: Gizaarte.**
- ▶ **KODEA 406: Multimedia Photographic Collage.**

Bost horiek izendatzeaz gainera, beste hiru proiektu hautatu behar dira ordezeko gisa. Ordezkoek bai izan behar dute ordena zehatza. Horretarako, zehaztu dira zeintzuk izan daitezkeen hautagaiak, zehazki, bi irizpide hautakoren bat betetzen duena:

- Puntuazio altua edota positiboa jaso dutenak
- Gometza kopuru adierazgarria jaso dutenak

Taularen errepassoa eginik, 4 proiekturen gainean eztabaida izan da. Eztabaida edo korapiloa askatzeko, bigarrenaz eta baita hirugarren aldi batez ere koloretako gometzak erabili dira. Hauek dira, zerrendan eta hurrenez hurren, hautatutako bost proiektuen ordezekoak izango direnak.



- ▶ **1. Ordezkoa= 379 KODEA: UR ARTEAN**
- ▶ **2. Ordezkoa= 373 KODEA: HILOTZ MIRA DONOSTIAN**
- ▶ **3. Ordezkoa= 389 KODEA: LAMIAK, CORTOMETRAJE**

Beraz, hiru horiek eta ordena horretan izendatzen dira, eta aurreko baten batek erretiratuko balu horiek izendatuko dira.




ARDORA LAN TALDEA:


Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

3. BALORAZIOA:

Berriro ere partaide denei eskatu zaie saioaren balorazioari dagokion galdetegi betetzea:

1. SAIOari dagokiona, hots, 2015-10-15 dataren saiokoa. Baina baita, lan taldearen lehen lan saioa izanik, balorazio orokorra duen galdetegia.
 - a. Galdetegien betetzea dela eta, azpimarratzen da aldiro aztertzen direla puntuazioak eta horien baitan saiatzen ari direla egokitzapenak egiten aldiro.
 - b. Aurreko saioetan bezala, talde balorazioa egiteko, hiru koloretako itsas argien bidez posizionatzea eskatu zaie partaideei eta haxe izan da emaitza:

	Saioa ez zait batera gustatu, ez dut ikasi, ez informazioa jaso. Metodologia ere ez zait oso egokia iruditu. Orokorrean sentrazio ezkorra dut.
	Besterik gabeko saioa izan da, informazioa jaso dut baina zalantza askorekin. Gehiegi ez dut ikasi eta metodologia besterik gabekoa izan da. Orokorrean sentrazio epela dut.
	Saioa egokia izan da, ikasi dut eta informazioa jaso dut. Metodologia egokia izan da eta sentrazio onarekin noa.

Hiru kategori horien arabera **Denek** hautatu dute **itsas argi berdea** =  eta horretarako honako balorazio solteak aipatu dituzte:



ARDORA LAN TALDEA:

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

4. AGURRA ETA HURRENGO URRATSEN ERREPASOA

Bilera amaitu aurretik aipatu da azaroko saioan bi kategorien arabera esleitu behar direla proiektuak:

- 2016€ kategoriaren arabera 5 proiektu (bilera honetan bezalaxe)
- 20160€ko kategoriaren arabera, proiektu bakarra

Dagoeneko, eta bi kategoriak aintzat hartuta, ia 60 proiektu jaso dira. Hori dela eta, hausnartu behar da metodologiaz. Aukera ezberdinak jarri dira mahai gainean, eta honakoa garatzea erabaki da:

ARDORA 1 eta 2 lan taldeei deituko zaie eta eskatuko zaie berak esleitzea **2016€** kategoriaren arabera.

ARDORA 3 LAN TALDEAK esleituko du 20160€ proiektua. Baina horretarako etxean honako lanak egingo ditu:

- Partaide erdiei bidaliko zaizkie 30 proiektu kuantitatiboki baloratzeko. Taula eginik, bueltan bidaliko dute.
- Hirurogei proiektuen artean, 10na baloratuenak ekarriko dira saiora. Horien emaitza kuantitatiboa errepasatu, eta horien guztien deskripzioa entzunda, taldean, saioan egingo da balorazio kualitatiboa.
- Bi balorazioen emaitza kontuan izanik, hausnarketa partekatua egingo da, eta proiektu bat hautatuko da taldean.

Beraz, eskatzen da etxeko lanei asko erreparatzea, eta beranduenez 15ean bertan goizean taula beteta bueltatzea eskatzen da. Eta asko eskertuz eskainitako denbora eta emandako guztia, txalo zaparradarekin amaitu da saioa.



Horrenbestez, bilera amaitutzat eman da iluntzeko 20'35etan.

Donostian, 2015eko urriaren 15ean.